

BEUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

Euskara ikasteko gogoia Argentinako euskaldun jatorrizkoen artean

Euskaldunek, argentinarratu zirenetik, beti erakutsi dute taldetan bildu eta nortasunari eusteko joera. Euskal etxeak dira gaur egun joera horren adierazgarririk nabarmenena. Euskal etxeak euskaldunen bilgune eta topaleku dira. Baita euskara eta euskal kultura bultzatzeko guneak ere. Gaur egun 50 euskal etxe daude Argentinan, Federación de Entidades Vasco-Argentinas (FEVA) batasunean bilduak.

Euskara ikastea

Jose Antonio Ardanza lehendakariak 1989an Argentinara egindako bisitaren ondorioz, 1990ean jarri zen abian oraingo egitasmoa, FEVA eta HABE elkarlanean jarritz.

Plan honen arabera, gaur egun 20 euskal etxetan irakasten da euskara. Azken ikasturtean 300 ikaslek, gehienak euskaldun jatorrizkoak, hasi eta amaitu zituzten eskolak. Irakasleentzat, Argentinan zehar barreiaturik bizi direnez, ikastaro bereziak antolatzen dira: urtarriletik martxora bitartean eta uztailean. Ikasleek ere, astebukaeretan

bertara joateko aukera dute. Gehienek euren kultur erroen bila ari direnez, euskara ikasteko sekulako motibazioa erakusten dute. Urtero-urtero, euskara ikasten ari diren guztiak bildu eta jai handia egiten dute.

Irakasleak

Euskara eta euskara irakasteko gaitasuna irakasten zaizkie irakasle gaiei HABE eta FEVAk antolatutako ikastaroetan. Hizkuntza ondo ikasten dutenean hiru hilabeteko lanaldia egiten dute Euskal Herriko barnetegietan. Dagoeneko bi taldek bete dute

fase hori. Eurretariko zenbaitek EGA titulua atera du. Hirugarren taldea 96ko urtarrilean etorriko da. Kontuan izanda ez direla irakasle profesionalak eta batzuk ikasiaz batera ari direla irakasten, oso lan ona egiten ari dira. Irakasle hauen prestakuntzarako HABEko teknikarien laguntza jasotzen dute Argentinan. Hilean behin FEVAren egoitzan biltzen dira lana koordinatzeko.

Etorkizunean

Orain arteko ardura nagusia Argentinan bertan irakasle talde ona eta gutxieneko egitura prestatzea izan da. Hazia ereinda dago.



"Gogozko Bidean",
B. Airesko euskaltzaleen
aldizkaria



Nor-nori-nork ikasten Buenos Airesko Laurak Bat euskal etxean.

Jaime Kerexeta, itzultzaile prestua

Itzulpengintzan egin duen lan handiaren aitortenez, *-Eguneroko Meza, Salmutegia, Euskal Biblia, Bolibar, Kenpis*, etab. luzea

euskaratu baititu-
Euskal Itzultzaile,
Zuzentzaile eta
Interpretarien
Elkarteak Ohorezko
Itzultzaile egin du.

Jaime Kerexeta
elorriarra, 75, oso
gazterik irten zen
herritik abadetza eta
musika ikasketak
zirela eta. Comillas,
Burgos, Sevilla eta
Tuyn, Galizian, ibili
zen, azken honetan
abadetu zen arte.

Ordurako euskaltzale sutsua zen.
Arantzibia ezizenarekin hainbat
olerki argitaratu zituen Eguna
egunkarian. Galizian zegoela,
Guatemalan ihes eginda zegoen
Jokin Zaitegi abade arrasatearraren
adiskide egin zen eskutitzez. Honek
Euzko Gogoa aldizkariaren aleak



Jaime Kerexeta

helarazten zizkion Guatemalatik,
gero berak Labaien, Mitxelena,
Lekuona, etabarri postaz bidal
ziezazkien. Berriro ere Euskal

Herrian, berak eman
zion Bizkaiko
gotzainari 339 euskal
abadek frankismoaren
diktaduraren
gehiegikeriak salatuz
1960an idatzitako
agiria. Gurpide
gotzainak bere herritik
ateraz zigortu zuen.

Denetara 53 liburu
argitaratu ditu. Erljio
gaien inguruko
itzulpenak gehienak.
"Lanik gogorra
Euskal Biblia izan zen.

Bi urtez gelditu barik ibili nintzen".
Iaz atera zen bigarren argitaraldia.
Bere poesia garai bateko adierazpide
bakartzat jotzen du. Azken aldi
honetan, ostera, heraldika lanak ditu
gogoko. Astirik gutxi, baina proiektu
asko darabil buruan euskaltzain
honek.

Lehen CD-ROMa euskaraz.

Euskarak teknologia berria
estreinatu du: CD-ROM
delakoa. Gipuzkoako Foru
Aldundiaren laguntzari esker
(15.000.000 pta), Elhuyar
elkarteak *Ezagutu Gipuzkoa*
CD-ROMa argitaratu du
"Izarren Hautsa" sailean. Disko
konpaktoaren itxura duen
honen helburua Gipuzkoa
ezagutaraztea da. Horretarako
multimedia izeneko
teknologiak erabili dira:
testuak (500 orrialde inguruko
informazioa), argazkiak
(1.000) eta doinuak (30).
Irakurri ahal izateko Apple
Macintosh ordenadorea eta
CD-ROM irakurgailua behar
dira.

Berrehun kopia argitaratu
dira, Bat Donostiako Mitxelena
Kulturunean egongo da
kontsultagai. Gainerakoak
Gipuzkoako liburutegi eta
turismo bulegoetan banatuko
dira.

Elhuyarrek bi urte behar
izan ditu *Ezagutu Gipuzkoa*
gauzatzeko.

Zuzenbidea euskaratzen.

IVAP/HAEK eta Deustuko
Unibertsitateak
Zuzenbideko bi testuliburu
euskaratzea erabaki dute:
Garcia de Enteriaren *Curso
de Derecho Administrativo*
eta Diez Picazo eta
Gullonen *Sistema de
Derecho Civil*. Hiru
ikasturtetan zehar lau
bekadun arituko dira
liburuok euskaratzen.
Egitasmoak 8 milioi pta.ko
kostoa du.

UNESCOren Eskola Elkartuen VII. Topaketak

Donostian izango dira
ekainaren 30etik
uztailaren 4ra bitartean.
Hezkuntza, Zientzia eta
Kulturarako Nazio Batuen
Erakundeak bultzatzen
dituen jardunaldi hauen
bidez hezkuntzako
aktibitate eta lan
esperimentalak bultzatu
nahi dira eta nazioartean
zabaldu. Euskal Herrian
oraingoz sei dira
UNESCOren kide diren
eskolak.

"Les Basques", japonieraz.

Sho Hagio,
31, soziologo japoniarrak
Jacques Allières-ek *Que
sait-je?* argitaletxe
frantsesean plazaratu zuen
Les Basques izeneko
liburua itzuli eta argitaratu
du japonieraz. Sho Hagiok
Zientzia Sustatzeko Elkarte
Japoniarrean egiten du lan.
Tokyoko Unibertsitatean
ikasi zuen euskara eta
dagoeneko hainbat aldiz
bisitatu du Euskal Herria.

Zuberera aztergai.

Ulrich J. Lüders irakasle
alemanak *The Souletin
Verbal Complex. New
Approaches to Basque
Morphophonology* liburua
argitaratu du ingelesez
Munichen. Zubereraren
aditza eta dituen formak:
hika, zuka eta xuka,
aztertzen ditu lau ataletan.
Liburua erosteko idatzi
helbide honetara: Lincom
Europa, P.O. Box 1316,
D-85703 Unterschleiss-
heim/München, Alemania.

"Etxetik plazara" proiektua Nafarroan.

Badira hiru hilabete Nafarroan euskara sustatzeko beste proiektu interesgarria plazaratu dela: Bortzirietan, Malerrekan, Leitzaldean eta Baztanen hamabostero zabaltzen den *Ttipi-ttapa* eskualde aldizkaria aprobetxatuz, bailara horietako IKako euskaltegiak *Etxetik plazara* zortzi orrialdeko gehigarria argitaratzen hasi dira.

Hilero 5.600 ale banatzen dira *Ttipi-ttaparen* barrenean. Aurten hamar zenbaki plazaratzeak ia 5.000.000pta.ko kostua izango du. Dirulaguntzarik lortzen ez duten bitartean euskaltegiek euren bizkar hartuko dute gastua.

IKako euskaltegien helburua bailara horietako euskaldun helduak alfabetatzea da, bereziki 20 eta 45 urte artean daudenak. "*Etxetik plazarak* zubi izan nahi du, hemengo jendeak dakien euskararen balioaz jabetu eta euskara jantzi eta osa dezan, era arin eta dibertigarrian", diote arduradunek.

Ttipi-ttaparekin jendeak duen

harrera ona aprobetxatuz alfabetatzearen beharra eta begirune soziala areagotu nahi dute, hainbat hizkuntza erregistro gaurkotu, antzineko zenbait berreskuratu eta euskararen aberastasuna zabaldu, dagoeneko alfabetatzen ari direnen lan osagarria izan dadin.

Irakurmena, idazmena, hiztegia, esamoldeak, etab. lantzen dituzte jolas, denborapasa eta lehiaketan bidez. Atsegina izatea garrantzitsua da asmo honetan.

Etxetik plazara erabiltzen dutenek aukera dute etxean betetako orriak bere inguruko euskaltegira bidaltzeko. Hango irakasleek zuzenketak egin eta berriro ere itzuliko dizkiete.

Antolatzaileak pozik daude lehen bi zenbakiekin jaso duten erantzunarekin, ehundik gora izan baitira zuzentzeko jaso dituzten aleak.

Etxetik plazara bi urterako egitasmoa izango litzateke.

Miren Amaia Arozarena, 32, Euskaldun jatorriko euskara irakasle argentinarra. Federación de Entidades Vasco-Argentinas, FEVA, batasunaren idazkaria da. Lazkaoko euskaltegian izan zen hiru hilabetez bere prestakuntza osatzen.

Maria Gabriela Mendia, 30, euskara irakaslea Buenos Airesen. Euskaldun jatorrikoa, Lazkaoko euskaltegian izan zen bere irakasle prestakuntzari amaiera emateko. Buenos Airesko *Euskaltzaleak* elkarteak argitaratzen duen *Gogozko Bidean* aldizkariko erredaktoretariko bat da.

Bixente Agirre, 80, Buenos Airesen bizi den getxotarra, erdaldun joan zen Argentinara orain berrogeita hamabi urte eta hantxe ikasi du euskara azken hogei urteetan. Buenos Airesko *Euskaltzaleak* elkarteak ohorezko lehendakaria da.

Argitalpenak

Nations Basques

Parisko *Autrement* aldizkariak Euskal Herriari eskainitako monografikoa argitaratu du maiatzeko zenbakian. *Nations Basques. Peuple mythique, aventure universelle* izenarekin, gure herriaren azterketa sakona eskaintzen du, irakurterrazak diren artikuluen bidez. Idazten dutenen artean Bernardo Atxaga, Eugenio Ibarzabal eta William A. Douglass daude. 110 liberatan salgai.



EUSKARAREN BERRIPAPERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia
Wellingtono Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gazteleraz

Izen-deiturak:
.....
Helbidea:
.....
Herria:
Kodea:
Lurraldea:
Tel.:

Galdezka

Aro herri baten atarian

G. Aro berri baten atarian gaudela esan duzu oraintsu. Zer esan nahi duzu horrekin?

E. Hauexek dira hori baieztatzen diren arrazoiak: batetik, azken urteotako lanaren emaitzak soma ditzakegu jadanik; bestetik, hizkuntza politikari buruzko gogoeta eta eztabaida aberasteko balio izan duen iritzi pluraltasunaren gainetik oinarri-oinarrizko zenbait akordiotara iristeko gai izan gara; hirugarrenez, urtetan euskarari arrotz izan zaion hainbat eta hainbat, euskararen erabilera sustatzearen aldeko da gaur egun; azkenik, herri agintean eta herri ekimenaren elkarlanerako aukerak gero eta gehiago dira.

Aro berri honetan helburu eta lehenetsunetik ahalik eta adostasunik haundiena lortzea bezain garrantzitsua da hizkuntza politikaren artikulazio eta jarraipenerako ardura bateratua izatea.

M. Karmen Garmendia.

Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia

Udako Euskal Unibertsitatearen XXII. ikastaroa

Iruñeak hartuko du berriro ere Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) XXII. edizioa. Uztailearen 18tik 30era bitartean 28 ikastaro landuko dira Larraona ikastetxean. Artea eta Komunikazioa, Giza eta Gizarte Zientziak, Hizkuntzalaritza, Natura Zientziak eta Zientzia eta Teknika atal nagusietan banatu dira ikastaroak. Denak barnetegi moduan antolatu dira. Egitaraua osatzeko mahainguruak, antzerkia, zinema eta bestelako ekintza osagarriak izango dira aukeran.

Astebeteko egonaldiak 16.000 pta. tako kostoa du, dena barne. Aste bikoak 30.000 pta. Beste urte batzuetan bezala, udal askok bekak ematen dituzte UEUra doazenezat. Nahi duenak, beraz, bere udaleko Euskara Zerbitzuan edo Euskara batzordean galde dezake.

UEUren jatorria hirurogeigarren hamarkadan Baionan egiten ziren kultur asteetan dago. Lehen lau

ikastaroak Iparraldean egin ziren. 1977tik aurrerako guztiak Iruñean. 1985az gero Iruñean eta Baionan egiten dira.

Udako hitza daraman arren, UEUren lana urte osoan zehar zabaltzen da: apirilean Iruñeko IV. Jardunaldietan; uztailearen 4tik 8ra, berriz, Baionako ekitaldia, Iparraldeko beharrei egokitua. Udazkenerako ere zenbait hitzaldi-ziklo antolatu ohi dira Euskal Herriko zenbait herritan.

Irabaz asmorik ez duen elkarte honek 180 liburutik gora argitaratu ditu hogeita bi urte hauetan. Aurten ere beste hamar liburu eta *Uztaro* aldizkariaren hirugarren zenbakia argitaratzeko asmoa du.

Berri gehiago: UEU, General Concha, 25, 6 Bilbo. Tfnoa.: (94) 421 71 45.

✓ Kontutan hartzeko

• **Euskadi Sariak.** Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak antolaturik. Euskaraz idatzitako literaturari dagokionez, *Pedro Axular Sariaren* irabazleak 2.650.000 pta. eskuratuko ditu; *Lizardi Sariaren*ak 1.350.000. Lanak aurkezteko epea ekainaren 5ean amaitzen da.

• **Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak.**

Sekzioa, baloraziozko kazetaritza, erreportaiak eta herrietako aldizkariak sarituko dira VI. edizio honetan. Sariak uztailearen 9an emango dira ezagutzera Andoaingo Udaletxean.

• **Araba euskaraz.** Ekainaren 19an egingo da Errioxako Lapuebla de Labarkan, Assa ikastolaren alde, *Non eta mugan* lelopean.

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA



GOBIERNO VASCO

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA
SECRETARIA GENERAL DE POLÍTICA LINGÜÍSTICA